

ESZENARIO MAKROEKONOMIKOA

Gipuzkoako ekonomiak gora egin zuen 2021. urtean: BPGa %5,8 igo zen ekitaldi horretan, aurreko urteetan bilakaera hau izan ondoren: %3,7ko igoera 2018an, %2,6ko igoera 2019an eta %9,3ko jaitsiera 2020an. Inguruko ekonomiek antzeko joera erakutsi zuten 2021ean: EAEn igoera %5,6 izan zen, eta Espainian Gipuzkoan baina 0,8 puntu gutxiago igo zen, +%5,0. EBn eta eurogunean %5,3 igo zen.

Nazioarteko ingurunea

Otsailaren 24an, Errusiako armadak Ukraina inbaditu izanak eragin geopolitiko handia ekarri du berekin. Egoera larri honetan, gatazka honen kezka nagusia gertatzen ari den tragedia humanoa eta soziala da, baina beharrezkoa da, orobat, gerraren eragin ekonomikoa kuantifikatzen saiatzea ere. Mundua pandemiaren ondorio kaltegarrietatik ateratzeko prozesuan dago oraindik, 2020an hasitako osasun eta ekonomia krisi izugarriaren ondoren normaltasunera itzultzeko ahaleginarekin. Munduko hazkunde ekonomikoak 2023an pandemiaren aurreko mailetara itzultzea espero zen, txertaketa kanpainen garapenei, laguntza makroekonomikoko politikei eta finantzaziorako baldintza onuragarriei esker. Hala eta guztiz ere, Errusiak hasitako gerrak erabat baliogabetzen du otsailaren 24a baino lehen egindako edozein aurreikuspen ekonomiko. Munduko egoera makroekonomikoei dagokienez, ziurgabetasun handia dago gatazkaren iraupenari eta tamainari buruz, eta, ezinbestean, susperraldiaren bidea oso ahulduta geratuko da.

Aurreikuspen ekonomikoak egiteko ardura duten nazioarteko erakundeak beheranzko berrikuspen sakonak argitaratzen hasi dira. Esate baterako, Consensus Forecasts-ek, martxoko txostenean, 2022an %3,8ko hazkunde eta 2023an %3,1ekoa ezartzen du mundu osoan. Hala ere, gerraren hasieraren hurbiltasunagatik, erakunde batzuek oraindik ez dute shock exogeno hori beren perspektibetan sartu, eta, beraz, beheranzko zuzenketa batzuk aurreikusten dira datozen asteetan.

Maila globalean, munduko ekonomia hainbat frontetan sufritzen ari da. Gatazka armatuak eragin negatiboa izango du hazkundean,

ESCENARIO MACRO-ECONÓMICO

La economía de Gipuzkoa creció durante el año 2021 (con un aumento del 5,8% del PIB). Ello, tras la subida del 3,7% de 2018, la subida del 2,6% de 2019, y la bajada del 9,3% de 2020. Las economías del entorno muestran en 2021 una situación similar: en la CAPV crece el 5,6% y España crece 0,8 puntos menos que Gipuzkoa, el +5,0%. La UE y la zona euro crece el 5,3%.

Entorno internacional

La invasión de Ucrania por parte del ejército ruso el 24 de febrero ha supuesto un gran impacto geopolítico. En esta grave situación, la principal preocupación de este conflicto es la tragedia humana y social que se está produciendo, pero también es necesario intentar cuantificar el impacto económico de la guerra. El mundo está todavía en proceso de recuperación de la pandemia, con un intento de regresar a la normalidad tras la terrible crisis sanitaria y económica iniciada en 2020. Se esperaba que el crecimiento económico mundial retomara los niveles previos a la pandemia a lo largo de 2023, gracias a los progresos en las campañas de vacunación, a las políticas de ayuda macroeconómica y a unas condiciones financieras favorables. Sin embargo, la guerra iniciada por Rusia invalida radicalmente cualquier previsión económica elaborada antes del 24 de febrero. Sobre los escenarios macroeconómicos mundiales, planea una enorme incertidumbre en cuanto a la duración y la magnitud del conflicto e, irremediablemente, la senda de recuperación quedará seriamente debilitada.

Los organismos internacionales encargados de elaborar previsiones económicas han comenzado a publicar intensas revisiones a la baja. Así, Consensus Forecasts, en su informe de marzo, establece un crecimiento mundial del 3,8% en 2022 y del 3,1% en 2023. No obstante, por la cercanía del inicio de la guerra, todavía hay instituciones que no han introducido ese shock exógeno en sus perspectivas, por lo que se prevé una cascada de correcciones a la baja en las próximas semanas.

A nivel global, la economía mundial sufre en diversos frentes. El conflicto armado impactará negativamente en el crecimiento a través de las

finantza merkatuetan izango dituen ondorioen, prezioen maila altuen gaineko presio handiagoen, hornidura kateko botila lepo iraunkorren eta eragile ekonomikoen konfiantzan izango dituen ondorioen bidez. Mendebaldeko ekonomiek Errusiaren aurka ezarritako zigorren sortak haren ekonomiari eragingo dio, isolamendu ekonomiko eta finantzario batekin, baina, era berean, zeharkako ondorio esanguratsuak izango ditu munduko ekonomian, energiaren, metalen eta elikagaien prezioen igoeraren bitartez. Munduko hazkundea mehatxatzen duen beste faktore bat ondasunen hornidura etetea da, eta litekeena da munduko eskaintzaren botila lepoak 2022an zehar irautea.

Alde batetik, Errusiak eta Ukrainak munduko ekonomian duten pisua txikia da nazioarteko merkataritzan eta finantza fluxuetan. Hala ere, beste aldetik, bi herrialdeek garrantzi handia dute ekonomia globalean, lehengaien hornitzaile garrantzitsuak direlako. Gerrak eskaintza shock bat eragin du mundu osorako oinarritzko jarduera-adarretan. Izan ere, munduko eskaintza kateak energiaren, metalen eta lehen sektorearekin eta elikadurarekin lotutako gaien esportazioen mende daude. Gatazka armatuan inplikaturako herrialdeetako lehengaien mende dauden metalak eta mikrotxipak bezalako produktuak hornitzeko arazoak nabarmen areagotuko dira.

Eurogunea da egungo gatazka geopolitikoaren aurrean kalteberena den eskualdeetako bat, Errusiatik duen hurbiltasun geografikoa eta energiaren arloan duen mendekotasun handia kontuan hartuta. Consensus Forecasts-ek 2022an %3,2ko hazkundea aurreikusten du, eta 2023an, berriz, %2,3koa. Aurreikuspen berrietan, inflazioa handiagoa izatea espero da, botila lepoek eragindako kostuen gaineko presioen ondorioz. Consensus Forecasts-ek kalkulatu duenaren arabera, euroguneko prezioak %5,7 eta %2,1 igoko dira 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Energiaren prezio altuagoek kontsumo eta inbertsio txikiagoa ekarriko diote eskari agregatuari. Halaber, bigarren txandako ondorioek, hala nola soldata igoerek, inflazioa maila altuan mantendu dezakete epe luzeagoan. Europako Banku Zentralak energiaren eta elikagaien prezio maila handiaz ohartarazi du, eta estanflazioaren (hazkunderik gabeko inflazioa) arriskuari aurre

repercusiones en los mercados financieros, las mayores presiones sobre los elevados niveles de precios, los cuellos de botella persistentes en la cadena de suministro y los efectos en la confianza de los agentes económicos. El paquete de sanciones aplicadas por las economías occidentales contra Rusia afectará a su economía con un aislamiento económico-financiero, pero también tendrá efectos indirectos significativos en la economía mundial en forma de escalada de precios de la energía, los metales y los alimentos. Otro factor que amenaza el crecimiento mundial es la interrupción del suministro de bienes y es probable que los cuellos de botella de la oferta mundial persistan a lo largo de 2022.

Por una parte, el peso de Rusia y Ucrania en la economía mundial es pequeño a nivel de comercio internacional y de flujos financieros. Sin embargo, por otra parte, ambos países tienen enorme importancia en la economía global por ser importantes proveedores de materias primas. La guerra provoca un shock de oferta en ramas de actividad básicas para el resto del mundo. Las cadenas de oferta mundiales dependen de sus exportaciones de energía, metales y materias relacionadas con el sector primario y la alimentación. Los problemas de aprovisionamiento de productos como metales y microchips, dependientes de las materias primas de los países implicados en el conflicto armado, se intensificarán significativamente.

La zona del euro es una de las regiones más vulnerables ante el actual conflicto geopolítico dada la cercanía geográfica y la intensa dependencia de Rusia en materia de energía. Consensus Forecasts prevé un crecimiento del 3,2% en 2022 y del 2,3% en 2023. En las nuevas perspectivas, la inflación se espera más alta, como resultado de las presiones de costes por los cuellos de botella. Consensus Forecasts estima el nivel de precios en la zona del euro en 5,7% y 2,1% en 2022 y 2023, respectivamente. Los precios más altos de la energía pesarán sobre la demanda agregada con menor consumo e inversión. Además, los efectos de segunda ronda, como los aumentos salariales, pueden mantener una elevada inflación durante un período más largo. El Banco Central Europeo alerta sobre el elevado nivel de precios de la energía y los alimentos, y se enfrenta al riesgo de la estanflación (inflación sin crecimiento). Esto hace que la autoridad monetaria marque

egin beharko dio. Horren ondorioz, moneta agintaritzak politiken normalizazio erritmoa 2022an espero zena baino motelagoa da. Alde positibotik, Europako funtsek eta Europar Batasunaren aurrekontuak bultzatutako inbertsioek ekarpen handiagoa eman diezaioke jarduera ekonomikoari.

Espainiako ekonomia

Consensus Forecast entitateak Espainiarako egin dituen aurreikuspenen arabera, 2021ko %5,0ren jaitsieraren ondoren, jarduera %5,1 haziko da 2022an, eta 2023an gutxiago egingo du gora (%3,4 haziko da).

Frantziako ekonomia

Frantziako ekonomiarako aurreikuspenak, 2021. urtean %7,0ko igoeraren ondoren, 2022an %3,3ren eta 2023an %1,7ren inguruko tasetan kokatzen dira.

EAEko ekonomia

Errusiako armadak Ukraina inbaditu izanak munduko egoera ekonomikoa zeharo nahastu du, Europako ekonomietan bereziki, gatazkarekiko hurbiltasun geografikoa dela eta. Otsailaren amaieran Errusiako tropak Ukrainan sartu ziren arte, Europako eta EAEko ekonomiaren egoerak baikortasunerako gonbita egin zuen. EAEren kasuan, 2021ean BPGaren hazkunde tasa %5,6 izan zen, laugarren hiruhilekoari esker; izan ere, hiruhileko horretan urte arteko aldakuntza tasa %4,7 izan zen, hirugarren hiruhilekoko datua baino zortzi hamarren handiagoa baita, 2022aren hasieran jarraitzea aurreikusten zen bizkortzeko prozesu batean. BPGaren hazkunde nabarmen horri esker, EAEko ekonomiaren susperraldia 2019ko mailatik lau puntura kokatu zen. Europan, hala Europar Batasuna nola eurogunea %5,2 hazi ziren urteko batez bestekoan eta %4,8 eta %4,2, berriz, laugarren hiruhilekoan.

Aipatutako gatazka armatuaz gain, EAEko ekonomia gutxienez beste hiru faktore garrantzitsuk baldintzatzen dute: pandemiaren jarraipenak, ekoizpen kateetan pairatzen ari diren botila lepoek eta inflazioaren bilakaerak. Lehenengo faktoreak zerbitzuetan du eragina bereziki, pandemia kontrolatzeko onartu diren

un ritmo de normalización de políticas más lento de lo que se esperaba al empezar 2022. Por el lado positivo, las inversiones impulsadas por los fondos europeos y el presupuesto de la Unión Europea podrían generar un mayor impulso a la actividad económica.

Economía del Estado español

Por su parte, las previsiones realizadas por Consensus Forecast para España para 2022, tras el crecimiento del 5,0% en 2021, presentan un aumento de la actividad del 5,1%, con menor incremento en 2023 (aumento del 3,4%).

Economía del Estado francés

Las previsiones para la economía de Francia, tras el aumento del 7,0% en 2021, se sitúan en tasas en torno al 3,3% para 2022 y al 1,7% para 2023.

Economía de la CAPV

La invasión de Ucrania por parte del ejército ruso ha trastocado el panorama económico mundial, con especial incidencia en las economías europeas, dada su proximidad geográfica al conflicto. Hasta la entrada de las tropas rusas en la vecina Ucrania, a finales de febrero, la situación de la economía europea y de la vasca invitaban al optimismo. En el caso vasco, el año 2021 se saldó con un incremento del PIB del 5,6%, gracias a un cuarto trimestre que registró una tasa interanual del 4,7%, ocho décimas por encima del dato del tercer trimestre, en un proceso de aceleración que se esperaba que tuviese continuidad en el inicio de 2022. Ese notable incremento del PIB permitió que la recuperación de la economía vasca se situase a cuatro puntos del nivel de 2019. En Europa, tanto la Unión Europea como la zona del euro crecieron un 5,2% en media anual y avanzaron, respectivamente, un 4,8% y un 4,6% en el cuarto trimestre.

Además del mencionado conflicto armado, la economía vasca está condicionada por al menos otros tres factores relevantes: la continuidad de la pandemia, los cuellos de botella en las cadenas de producción y la evolución de la inflación. El primero de los factores incide especialmente en los servicios,

mugikortasuneko murrizketak jasaten baitituzte. Murrizketak arindu ziren ahala, haien balio erantsia bizkortu egin da. Horixe hautematen da laugarren hiruhilekoko datuan sektore osorako (%5,4), baina bereziki merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldean (%12,2).

Bigarren faktoreak industrian du eragina nagusiki. Zenbait produkturen eskasiak, batez ere erdieroaleenak, kalte egin zion Euskadiko manufaktura alorreko enpresa garrantzitsu batzuen jarduera ohikoari, hainbat egunez gelditu behar izan baitzuten. Horren ondorioz, manufakturen balio erantsia oraindik esanguratsua den %3,8 hazi zen, nahiz eta aurreko tasaren oso azpitik egon. 2022ko koiunturazko informazioak, gatazka armatuaren aurrekoa baita, atzerapenak murrizten ari zirela eta jarduera normalera pixkanaka itzultzen ari zela iradokitzen zuen, orain gerraren ondorio ekonomikoek berriro ere hondatuko dutena.

Inflazioa da aipatutako hirugarren faktorea eta azken aldian protagonismo handiena bereganatzen ari dena. Izan ere, Ukrainaren inbasioaren aurreko tentsio geopolitikoek produktu energetikoen (petrolio eta gasa) prezioak igo zituzten jada eta produktu multzo nagusietara igarotzen hasiak ziren, eskaintza urria eta eskari handia orekatzeko beharrezkoa zen aldi labur bat izango zela espero zen neurrian. Baina gatazka armatuak areagotu egin du prezioen goranzko joera hori, eta energiaren prezioak maila altuetan daude ikuspegi historiko batetik. Errusiak Europako petrolio eta gas hornitzaile gisa duen garrantziaren ondorioz, nazioarteak herrialde erasotzaileari ezarritako zigor ekonomikoek energia lehengaien etorrera murriztea ekarri du berekin.

Europak Errusiarekin dituen merkataritza harremanak eten egingo dira herrialde horri ezarri dizkioten zigorren ondorioz, EAEko esportazioek pandemia aurreko mailak berreskuratu eta gaintitu zituzten garai batean. Hain zuzen ere, 2021ean atzerrira esportatutako ondasunen 25.665 milioi euroak inoiz erregistratu den zenbatekorik handiena dira, eta 2018ko 25.488 milioi euroak (serie historikoaren aurreko balio maximoa baitzen) baino zertxobait

que sufren las restricciones a la movilidad que se han ido adoptando para controlar la pandemia. A medida que las restricciones se han aligerado, su valor añadido se ha acelerado. Eso es lo que se aprecia en el dato del cuarto trimestre para el conjunto del sector (5,4%), pero en especial en el grupo que incluye al comercio, la hostelería y el transporte (12,2%).

El segundo factor afecta en mayor medida a la industria. La escasez de determinados productos, en especial de los semiconductores, perjudicó la marcha normal de algunas empresas manufactureras importantes de Euskadi, que tuvieron que parar durante varios días. En consecuencia, el valor añadido de las manufacturas creció un todavía significativo 3,8%, pero muy por debajo de su tasa anterior. La información coyuntural de 2022, previa al conflicto armado, sugería una reducción en los retrasos y una vuelta paulatina a la actividad normal, que ahora se verá de nuevo trastocada por las consecuencias económicas de la guerra.

La inflación es el tercer factor mencionado y el que mayor protagonismo está adquiriendo en los tiempos recientes. Así, las tensiones geopolíticas previas a la invasión de Ucrania ya habían elevado los precios de los productos energéticos (petróleo y gas) y se habían empezado a trasladar a los principales grupos de productos en lo que se esperaba que fuese un ajuste temporal entre una oferta insuficiente y una demanda elevada. Pero el conflicto armado ha acentuado esa tendencia al alza y los precios de la energía se encuentran en niveles históricamente altos. La importancia de Rusia como suministrador europeo de petróleo y de gas hace que las sanciones económicas impuestas por la comunidad internacional al país agresor tengan como consecuencia una restricción de la llegada de materias primas energéticas.

Las relaciones comerciales de Europa con Rusia se verán interrumpidas a raíz de las sanciones impuestas al país, en un momento en el que las exportaciones vascas al extranjero habían recuperado y superado los niveles previos a la pandemia. En efecto, los 25.665 millones de euros en bienes exportados al extranjero en 2021 es la cifra más elevada jamás registrada y se encuentra algo por encima de los 25.488 millones de euros de

gorago daude. Inportazioek ere goranzko bilakaera erakutsi zuten, baina, oro har, kanpo saldoak ekarpen positiboa egin zion BPGaren hazkundeari, bai urteko batez bestekoan, bai, bereziki, laugarren hiruhilekoan.

Barne eskariak sendotasun nabarmena erakutsi zuen iazko urtearen azken zatian (%3,1), nahiz eta familien kontsumoa (%3,0) ez zen handitu pentsa zitekeen bezainbeste, pandemian zehar pilatutako aurrezkiaren gorakada handia zela eta. Administrazio publikoen gastua, pandemia hasi zenetik aparteko ahalegina egin ondoren, moteldu egin zen eta urte arteko %1,7ko igoera izan zuen, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren erdia. Bestalde, kapital eraketa gordinak (%4,3) portaera dinamikoa erakutsi zuen ekipamendurako ondasunen atalean (%7,5), eta motelagoa (%2,2), ordea, gainerako inbertsioan.

EAEko ekonomiaren susperraldian, erabakigarria izan da enpleguaren bilakaera, BPGaren bilakaeratik oso hurbil egon baita. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, BPGak urteko batez bestekoan izan zuen hazkunde tasak (%5,6) enplegua %5,5 handitzea ekarri du berekin. Laugarren hiruhilekoari dagozkion zenbakiak, hurrenez hurren, %4,7 eta %4,6 izan dira. Tasa horietatik eratortzen den produktibitate irabazi txikia produktibitate gutxiko zerbitzu batzuek (hala nola ostalaritzak) enpleguaren gorakadan izan duten pisu handiaren ondorio zuzena da.

2018, que era el anterior valor máximo de la serie. Las importaciones también mostraron una evolución favorable, pero, en conjunto, el saldo exterior realizó una aportación positiva al incremento del PIB, tanto en media anual como, especialmente, en el cuarto trimestre.

La demanda interna mostró una notable fortaleza en el tramo final del año (3,1%) a pesar de que el consumo de las familias (3,0%) no repuntó tanto como cabía pensar dado el fuerte aumento del ahorro producido durante la pandemia. El gasto de las administraciones públicas, tras haber realizado un esfuerzo excepcional desde el inicio de la pandemia, se moderó y anotó una subida interanual del 1,7%, la mitad de la registrada el trimestre anterior. Por otro lado, la formación bruta de capital (4,3%) tuvo un comportamiento dinámico en el apartado de bienes de equipo (7,5%) y más contenido (2,2%) en el resto de la inversión.

En la recuperación de la economía vasca, ha resultado decisiva la evolución del empleo, que ha estado muy pegada a la del PIB. Efectivamente, en términos de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, el incremento del PIB en el año (5,6%) ha traído consigo un aumento del empleo del 5,5%. Las cifras correspondientes al cuarto trimestre son, respectivamente, del 4,7% y del 4,6%. La baja ganancia de productividad que se deriva de esas tasas se explica por el gran peso que han tenido algunos servicios de poca productividad, como la hostelería, en el mencionado repunte del empleo.

	2022.I	2022.II	2022.III	2022.IV	2022	2023
BPG / PIB	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Amaierako kontsumoa /						
Consumo final	5,2	4,2	4,2	4,1	4,4	3,7
Kontsumo pribatua /						
Consumo privado	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Kontsumo publikoa /						
Consumo público	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Kapital eraketa gordina /						
Formación bruta capital	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskaria /						
Demanda interna	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpoko saldoaren ekarpena /						
Aportación saldo exterior	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
BPGaren deflatoarea /						
Deflactor PIB	4,6	4,4	4,2	3,5	4,2	2,3
Lana / Empleo	3,1	1,5	1,1	1,4	1,8	0,8
Langabezia tasa / Tasa de paro	9,4	9,8	9,5	9,4	9,5	9,1

Bariazio tasa /Tasa de variación

Iturria: Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza – Eusko Jaurilaritza

Fuente: Dirección de Economía y Planificación – Gobierno Vasco

EAEko enpresen kasuan, merkataritzako bazkideek eskaria murriztuko dute ziurgabetasun horren ondorioz, eta horri hornidura kateetan berriro agertuko diren tentsioak gehitu beharko zaizkio. Testuinguru berriak kapital eraketa gordinean izango duen eragina oso garrantzitsua da, antzeko arrazoiengatik: ziurgabetasuna, lehengaien garestitzea, eskariaren murrizketa eta eskaeren atzerapenak. Kasu horretan, hazkunde aurreikuspena %5,0 izango da 2022rako, eta %4,3, berriz, 2023rako.

Eskaintzaren analisisan, agertokiaren okertzea sektore nagusi guztietara hedatu da. Gainontzekoen gainetik, industriaren beherazko zuzenketa nabarmentzen da, 2022an %3,9 haziko baita. Hasiera batean, industria izango da gaur eguneko zailtasunen aurrean gehien pairatuko duen ekoizpen jarduera, baina gainerakoek ere nozituko dute eragina. Eraikuntzak indarra galduko du lehengaien garestitzeagatik eta hornidura arazoengatik, sektorearen ekoizpena mugatuko baitute. Azkenik, zerbitzuek, batez ere familien eskaerari erantzuteko zerbitzuek, kontsumo pribatuaren apaltzea nabaritutako dute.

Hasieran aurreikusitakoa baino BPGaren hazkunde txikiago batek enplegu gutxiago sortzea dakar berekin, bai lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, bai landunetan. Hala eta guztiz ere, oraingo agertokian, enpleguak aurrean %2,8 gora egitea espero da

En el caso de las empresas vascas, sus socios comerciales reducirán la demanda por esa incertidumbre, a la que habrá que sumar las tensiones que volverán a aparecer en las cadenas de suministros. La incidencia del nuevo contexto sobre la formación bruta de capital es muy significativa, por razones similares: incertidumbre, encarecimiento de las materias primas, reducción de la demanda y retrasos en los pedidos. En este caso, la previsión de crecimiento se sitúa en el 5,0% para 2022 y el 4,3% en 2023.

En el análisis de la oferta, el empeoramiento del escenario se extiende a todos los sectores principales. Destaca por encima del resto la corrección a la baja de la industria, que pasa a crecer en 2022 un 3,9%. En principio, esta será la actividad productiva que más acuse la dificultad del momento, pero también el resto se verá afectado. La construcción perderá intensidad por el encarecimiento de las materias primas y los problemas de abastecimiento, que limitarán su producción. Por último, los servicios, en especial los destinados a satisfacer la demanda de las familias, notarán la moderación del consumo privado.

Un crecimiento del PIB menor al inicialmente previsto lleva consigo una generación de empleo más reducida, tanto en puestos de trabajo equivalente a tiempo completo como en personas ocupadas. Aun así, en el escenario actual se espera que el empleo aumente este

lanpostuetan, hau da, benetan lan egindako orduetan, eta %1,8, berriz, landunetan. Datorren urtean, lan merkatuaren bilakaera onak bere horretan jarraituko du eta zenbatekoak %1,8 eta %0,8 izango dira. Horri esker, aurtan aurreikusitako langabezia tasa %9,5 izango da, 2021ekoa baino puntu erdi txikiagoa, eta datorren urtekoa %9,1.

Lehenago adierazi den bezala, inflazioa Europako ekialdeko gerraren ondorio nabarmenetako bat da. Espero da BPGaren deflatoarea %4,2ra igoko dela aurtan urteko batez bestekoan, baina datorren urtean %2,3ra jaitsiko da, eta urtearen amaiera %2tik beherakoa izango da. Urte honetarako, nahiz eta BPG erreala 2021ean baino nabarmen gutxiago handituko den (%4,5, iazko %5,6aren aldean), prezioen igoeraren ondorioz BPG nominala %8,8 igoko da. 2023an, BPG nominalerako aurreikusitako igoera %6,5 izango da.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egungo agertoki makroekonomikoa landu du munduko hazkunde ekonomikoari, deflatoeei, Europako Banku Zentralak markatzen duen interes tasari, eta 2022 eta 2023 urteetarako euroak dolarrarekiko izango duen truke tasari buruzko hipotesietan oinarrituta. Hipotesi horien artean, ekonomia garatuentzat espero den hazkunde txikiagoa nabarmentzen da, horiek baitute eragin handiena EAEko ekonomiaren bilakaeran.

Era berean, deflatoeen balioa gorantz zuzendu da oraingo taula makroekonomikoan, azken asteetan prezioek erakutsi duten goranzko bilakaera bizia ikusita. Moneta politikaren normalizazioaren hasiera ere zertxobait atzeratu da, eta euroaren balioa ahuldu egin da dolarren aldean, gerrak kalte handiagoa egingo baitio Europari AEBei baino. Azkenik, ziurtzat jo da gatazka ez dela epe laburrean konponduko, eta, intentsitate txikiagoarekin bada ere, epe luze batean zehar mantenduko dela.

Eusko Jaurlaritza da Europako ekialdean dagoen gerra kontuan hartu duen erakunde bakarra 2022rako eta 2023rako aurreikuspen ekonomikoen hipotesietan. Beste erakunde batzuek EAEko ekonomiari buruz egindako gainerako iragarpenak ez dira oraindik eguneratu. Horrela, 2022rako, beheko

año un 2,8% en puestos de trabajo, es decir, en horas efectivamente trabajadas, y un 1,8% en personas ocupadas. El año próximo, continuará la buena marcha del mercado laboral y las cifras respectivas serán del 1,8% y del 0,8%. Gracias a ello, la tasa de paro prevista este año será del 9,5%, medio punto inferior a la de 2021, y el próximo del 9,1%.

Como se ha señalado, la inflación es una de las consecuencias más visibles de la guerra en el este de Europa. Se espera que el deflactor del PIB suba hasta el 4,2% este año en media anual, si bien el próximo se irá moderando hasta el 2,3%, con un final de año por debajo del 2%. Para este año, a pesar de que el PIB real aumentará sensiblemente menos que en 2021 (4,5% frente al 5,6% del año pasado), la subida de los precios hará que el PIB nominal se incremente un 8,8%. En 2023, la subida prevista para el PIB nominal es del 6,5%.

La Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha elaborado el actual escenario macroeconómico en base a unas hipótesis sobre el crecimiento económico mundial, los deflactores, el tipo de interés que marca el Banco Central Europeo y el tipo de cambio del euro frente al dólar para los años 2022 y 2023. Entre esas hipótesis, destaca el menor crecimiento esperado ahora para las economías desarrolladas, que son las que mayor incidencia tienen en la evolución de la economía vasca.

De igual manera, se ha corregido al alza el valor de los deflactores, vista la intensa evolución al alza que están teniendo los precios en las últimas semanas. También se ha retrasado ligeramente el inicio de la normalización de la política monetaria, y se ha debilitado el valor del euro frente al dólar, dado que la guerra perjudicará más a Europa que a Estados Unidos. Por último, se ha considerado que el conflicto no se va a resolver en el corto plazo y que, aunque será con menor intensidad, se mantendrá a lo largo de un periodo largo.

El Gobierno vasco es el único organismo que ha incorporado la guerra en el este de Europa en las hipótesis de las perspectivas económicas para 2022 y 2023. El resto de predicciones para la economía vasca elaboradas por otras instituciones no han sido todavía actualizadas. Así, para 2022, en el extremo inferior se



muturrean Eusko Jaurlaritzak egindako hazkunde aurreikuspena dago kokatuta (%4,5), eta goiko muturrean Laboral Kutxak aurreikusi zuena (%6,3). 2023rako, egungo aurreikuspenak Ceprederen %3,7 eta BBVAren %4,5 artean daude. Horien artean, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak espero duen %4,1 dago.

encuentra la previsión de crecimiento realizada por el Gobierno vasco (4,5%) y en el extremo superior aparece el 6,3% que previó Laboral Kutxa. Para 2023, las expectativas actuales fluctúan entre el 3,7% de Ceprede y el 4,5% de BBVA. Entre ellas, se sitúa el 4,1% esperado por la Dirección de Economía y Planificación.